BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4498

EBAZPENA, 2013ko irailaren 2koa, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinen bidez beherago zehaztutako 132 kV-ko linea elektrikoa (KZZ) baimendu, onura publikoko deklaratu eta linea horren aldatze-proiektua onartzen baita: Azpeitiko udalerrian, Abadiño Azpeitia 1 eta 2 lineetako Corrugados TArako deribazioa (Erreferentzia: 24018/ATH 2011-149).

AURREKARIAK

1.– 2011ko azaroaren 8an, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak Azpeitiko udalerrian Abadiño-Azpeitia 1 eta 2 lineako Corrugados TArako deribazioa den 132 kV-ko (KZZ) linea elektrikoaren aldaketa ezartzeko administrazio-baimena, betearazpen-proiektuaren onarpena, onura publikokoa dela dioen aitorpena, eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zituen. Horretarako, eskariarekin batera, proiektu teknikoa aurkeztu zuen, industriako ingeniari Borja de Benito Navaridas jaunak sinatua.

2.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren bitartez (2002-12-23ko EHAA), honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenerako prozedurak arautu ziren: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere. Bada, honako hauetan xedatutakoarekin bat etorriaz: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 53. artikulua (1997-11-28ko EHAA) eta Goi-tentsioko linea elektrikoetako baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko Erregelamendua eta ITC-LAT 01etik 09ra arteko jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua (EHAA, 2008-03-18), Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren aipatutako eskaria jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen, 2012-05-23ko EHAAn, 2012-05-08ko GAOn eta 2012-05-10eko El Diario Vasco egunkarian. Eskari horrekin batera, enpresak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda agertzen da.

3.– 2012ko maiatzaren 3an, Azpeitiko Udalari bidali zitzaion iragarkia, udaletxeko ediktu-oholean jartzeko.

4.– 2012ko maiatzaren 3an, Azpeitiko Udalari aurkeztutako proiektuaren separata bidali zen eta eskabidearekiko adostasuna edo eragozpenak adierazteko eskatu zen bai eta, hala egokituz gero, baldintza teknikoak ezartzeko.

5.– 2012ko maiatzaren 3an, Uraren Euskal Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiari, Euskal Trenbide Sareari eta Telefónica de España,SAri aurkeztutako proiektuaren separata bidali zen eta eskabidearekiko adostasuna edo eragozpenak adierazteko eskatu zen bai eta, hala egokituz gero, baldintza teknikoak ezartzeko. 2012ko ekainaren 18an, eskari hori berriro egin zitzaien Uraren Euskal Agentziari eta Euskal Trenbide Sareari.

6.– Eskabidearekiko adostasuna edo eragozpenak adierazteko eta, hala badagokio, baldintza teknikoak ezartzeko eskariaren aurrean, Azpeitiko Udalak, Telefónica de España SAk, Uraren Euskal Agentziak, Euskal Trenbide Sareak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak onartu zuten aurkeztutako proiektua, baldintza tekniko batzuk ezarrita.

7.– Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri helarazi zitzaizkion Azpeitiko Udalak, Telefónica de España SAk, Uraren Euskal Agentziak, Euskal Trenbide Sareak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako baldintzak, eta enpresak erantzuna eman zien guztiak ere onartuz.

8.– Jendaurreko informazio-erakustaldian, Jose Antonio Agirre Sarasua, Jose Antonio Urkizu Astiazaran, Manuel Agirre Urdalleta eta bestek sinatutako alegazioak aurkeztu ziren, labur-zurrean honela ziotenak:

– Jose Antonio Agirre Sarasua jaunak dio ez zutela gonbidatu Azpeitiko Udalak egindako informazio-bileretara, hasierako trazatuak ez ziolako eragiten. Lehenengo alternatibek eragindako jabeek trazatua lekuz aldatzea lortu dutela eta orain berari eragiten diotela, AP.4 euskarria bere bordaren aurrean kokaturik dagoelako.

– Jose Antonio Urkizu Astiazaran jaunak eskatzen du AP.2 euskarrirako bidea AP.3 euskarritik egiteko. Horrela, bere jabetzako 6. poligonoko 78. partzelari ez dio eragingo (partzela horretan, 15 urteko pinudi bat dauka). Bere proposamena biltzen zuen planoa ere aurkeztu zuen.

– Manuel Agirre Urdalleta jaunak eta bestek eskatu dute linea berria bere ondasun eta etxebizitzetatik urrundu dadila, Corrugados Azpeitiaren industria- edo landa-partzelak hartuz. Trazatu alternatibo bat proposatzen da, proiektuko AP.6-tik Corrugados Azpeitiko atarira bitarteko tarterako. Eskatu dute, orobat, enpresa itxi edo Lasaoko kokapen berrira aldatuz gero, 132 kV-ko linea eraisteko, konpainia hornitzailearen edo enpresa hartzailearen kontura, lineak Corrugados Azpeitia baizik ez du hornitzen eta.

9.– 2012ko ekainaren 26an, Jose Antonio Agirre Sarasua jaunak aurkeztutako alegazioak Iberdrola Distribución Eléctrica, SAUri helarazi zitzaizkion, eta hark erantzun zuen ezen, Udalarekin trazatu bat adostu nahirik, Udalaren proposamenak onartu zirela (proposamen horien oinarrian linea elektrikoa baserritik eta hirigunetik urruntzea zegoen), horrek on egingo ziolakoan proiektuak eragindako jende gehienari. 2012ko urriaren 8an, Azpeitiko Udalari eskatu zitzaion gai horri buruzko iritzia eman zezala, bestela ulertuko baitzen hitzartutako trazatua berresten zuela. Azpeitiko Udalak ez zuen ezer esan.

10.– 2012ko ekainaren 26an, Jose Antonio Urkizu Astiazaran jaunak aurkeztutako alegazioak Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresa eskatzaileari helarazi zitzaizkion, eta hark erantzun zuen eskatzaileak aipatutako sarbide-proposamena aztertu ondoren bideragarri ikusten zuela, ikuspegi teknikotik, eta, hori dela-eta, ados zegoela proposamen horrekin.

11.– 2012ko ekainaren 26an, Manuel Agirre Urdalleta jaunak eta bestek aurkeztutako alegazioak Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri helarazi zitzaizkion, eta hark erantzun zuen:

– Pentsatutako linearen aldaketaren afekzioari dagokionez, zirkuitu bikoitzeko linea elektriko berri baten beharra ikusten dela, gaur egungoa ordeztuko duena, gaur egungoa zaharra denez, zaila baita mantentzea. Linea berria egin ondoren, linea eraisteari ekingo zaio, 37. euskarritik 8.era bitartean, eta gaur egungo trazatua ezarriko da, eta leku horretan ez da linea elektrikorik izango, eta lineak ezarritako energia elektrikoa pasatzearen zortasuna desagertuko da.

Trazatu alternatiboaren proposamenari dagokionez, Goi-tentsioko linea elektrikoetako baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko Erregelamendua onartzen dituen otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuak ITC-LAT 07 jarraibidean esaten duenez, «... ez da linearik eraikiko lehenago zehaztutako zerrendan eraikinen eta instalazio industrialen gainetik». Beraz, proposamen hori ezin da eraginkorra izan, energia elektrikoa pasatzeagatiko zortasun iraunkor bat sorrarazten duelako, Corrugados altzairutegiaren eraikinen gainetik igarotzen denez gero.

– Pentsatutako linea eraisteko eskariari dagokionez, gaur egungo linea elektrikoa guztiz edo partez kentzeko baldintzak egokiak badira, enpresak ekingo dio, aparteko espedientean, linea elektrikoa itxi eta eraistea baimentzeko izapideak egiteari.

12.– 2013ko martxoaren 19an, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumeneko sailburuordeak ebazpen bat eman zuen, Azpeitiko udalerrian Abadiano-Azpeitia 1 eta 2 lineako Corrugados TArako deribazioa den 132 kV-ko (KZZ) linea elektrikoa aldatzeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena baiesten zuena. Ebazpen hartan orobat ezarri ziren proiektua egiteko baldintzak; baldintza horiek lotesleak dira hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.2 artikuluan.

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Espedientean bete egin dira honako hauetan ezarritako arauzko izapideak: abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoa garraiatu, banatu, saldu eta emateko jarduerak eta energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituena; Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legea; Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea; Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua (2008-01-26ko BOE), Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitakoari buruzkoa (1998-03-27ko EHAA); otsailaren 15eko 223/2008 Dekretua, goi-tentsioko linea elektrikoetako baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko Erregelamendua eta ITC-LAT 01etik 09ra arteko jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena; bat datozen gainerako legeak.

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuan ematen zaizkion ahalmenez baliatuz (2013-04-24ko EHAA), hau

EBAZTEN DU:

1.– Distribución Eléctrica SAUri baimena ematea, Azpeitiko udalerrian Abadiano-Azpeitia 1 eta 2 lineako Corrugados TArako deribazioa den 132 kV-ko (KZZ) linea elektrikoaren aldaketa betearazteko proiektua ezar eta onar ditzan. Proiektu horrek ezaugarri hauek ditu:

Linea aldatzea:

– Zerbitzuko tentsioa: 132 kV (KZZ).

– Eroaleak: 6 LA-280 HAWK.

– Zuntz optikoa: OPGW 16-48.

– Lurreko kablea: ARLE 53.

– Euskarriak: sareta.

– Luzera: 1.971,73 m.

– Hasiera: Abadiño-Azpeitia lineako 37. zenbakiko euskarria.

– Bukaera: Abadiño-Azpeitia lineako 8. zenbakiko euskarri berria.

Behin-behineko deribazioa:

– Zerbitzuko tentsioa: 132 kV (zirkuitu bakuna).

– Eroaleak: 3 LA-280 HAWK.

– Zuntz optikoa: OPGW 16-48.

– Lurreko kablea: ARLE 53.

– Euskarriak: sareta.

– Luzera: 451,95 m.

– Hasiera: Abadiño-Azpeitia lineako Corrugados TArako deribazioaren 3. zenbakiko euskarria.

– Bukaera: Corrugados-Azpeitia TAren ataria.

2.– Baimentzen den instalazioa herri-onurakotzat deklaratzea, eta deklarazio horrek, azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro ondorioekin.

Ebazpen hau bi dekretu hauen arabera eman da: abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua; eta baldintza orokor hauek bete behar dira:

1.– Obrak onartutako proiektuaren eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera egin beharko dira, eta proiektu horretarako egindako ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpenean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

2.– Martxan jartzeko epea 2 urtekoa izango da, ebazpen honen datatik aurrera.

3.– Obrak bukatzen direnean, horren berri emango dio instalazioen titularrak sail honek Gipuzkoan duen Lurralde Ordezkaritzari, hain zuzen ere, behin betiko errekonozimenduaren ondorioetarako eta martxan jartzeko akta egiteko.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak errespetatuz ematen da ebazpen hau; eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, baimena hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe ematen da –halakorik badago–, eta jabetza-eskubidea errespetatuta.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 2a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.